



OHIKO GALDERAK

1. Non erregistratu behar dira kooperatibak?

Euskadiko Kooperatiben Erregistroan. Erregistro publikoa da, Eusko Jaurlaritzan lan-arloko eskumena duen sailari atxikia.

2. Kooperatibei buruzko zein legeria da aplikagarria kooperatibetan?

- 5/2001 Legea, urriaren 7koa, Euskadiko Kooperatiben 11/2019 Legea aldatzekoa.
- 11/2019 Legea, abenduaren 20koa, Euskadiko Kooperatibena.
- 5/8/2005 Dekretua, Euskadiko Kooperatiben Legearen Araudiari buruzkoa (EKLA).
- 5/9/2005 Dekretua, martxoaren 29koa, Euskadiko Kooperatiben Erregistroaren antolamenduko eta funtzionamenduko erregelamendua (EKEE) onartzen duena.

3. Zenbat bazkide behar dira gutxienez kooperatiba bat sortzeko?

Lan elkartuko edo ustiapen komunitarioko kooperatiba txikien kasuan, 2 bazkide langile mugagabe behar dira gutxienez.

Beste kooperatiba batzuen kasuan, sortu nahi den kooperatiba-mota bereko 3 bazkide behar dira gutxienez.

Adibidez:

- Lan elkartuko kooperatibak: 3 langile mugagabe.
- Nekazaritzako elikagaien kooperatibak: nekazaritza-, abeltzaintza- edo basogintza-ustiategien edo ustiategi mistoen 3 titular.
- Garraio-kooperatibak: garraio-enpresen 3 titular.

Eta abar.

Gainera, Legeak beste kasu espezifiko batzuk finkatzen ditu kooperatiba-mota desberdinetarako, hala nola etxebizitzako, irakaskuntzako eta gizarteratzeko kooperatibetarako.



4. Nor izan daitezke bazkide laguntzaile?

Kooperatibaren helburu soziala lortzen lagundu dezaketen pertsona fisikoak edo juridikoak, publiko zein pribatuak, izan daitezke bazkide laguntzaile, helburu hori bete-betean garatu ezin badute ere.

5. Bazkide izan gabe laguntzaile izateko aukera dago?

Kooperatibek edonorekin egin ditzakete jarduerak, baina, bazkide ez badira edo bazkideen liburuan bazkide gisa agertzen ez badira, hirugarren pertsonatzat hartuko dira beti, inola ere bazkide laguntzailetzat. Era berean, kooperatibak pertsona horiekin egindako jarduera ezin izango da jarduera kooperatibizatu gisa hartu; aitzitik, hirugarrenekin egindako eragiketa gisa hartuko dira, eta, kasu horretan, kooperatibak ezin izango du gainditu kooperatiba bakoitzarentzat hirugarrenekin egiteko ezarritako eragiketa-ehunekoa, betiere kooperatiba-mota aintzat hartuta.

6. Zein dira bazkideen betebeharrak?

- a) Batzar nagusiek eta gainerako organoek deitutako bileretara joatea.
- b) Aukeratuak izan diren karguak onartzea, salbuesteko arrazoi justifikaturik ez badago.
- c) Kooperatibaren xede diren jardueretan parte hartzea. Ondore horietarako, estatutuetan ezarriko dira parte hartzeko moduluak edo gutxieneko arauak. Era berean, bidezko arrazoiak daudenean, administratzaileek bazkideren bat betebeharrak hori betetzetik libre utzi ahal izango dute.
- d) Kooperatibaren helburu sozialari lehiaz ez egitea eta halakorik egiten duenari ez laguntzea, baldin eta administratzaileen berariazko baimena jaso ez badu.
- e) Kooperatibaren jarduerak eta datuak isilpean gordetzea, horiek zabaltzea kooperatibaren interesen kalterako bada.
- f) Kapital sozialari egin beharreko ekarpenak ordaintzea, aurreikusitako baldintzetan.
- g) Berari galerak egozte onartzea, batzar nagusiak zehaztutako zenbatekoan.



Legeen eta estatutuen ondorioz sortzen diren gainerako betebeharrak betetzea, bai eta kooperatibako organoek balio osoz hartutako erabakien ondorioz sortzen direnak ere.

7. Zein dira bazkideen eskubideak?

- a) Kooperatibaren organo-karguetarako kideak aukeratzea eta aukeratuak izatea.
 - b) Batzar nagusiaren eta bazkideak partaide diren gainerako organoen erabakiak hartzen direnean, proposamenak egitea eta hitzarekin eta botoarekin parte hartzea.
 - c) Kooperatibaren jarduera guztietan parte hartzea, inolako bereizkeriarik gabe.
 - d) Beren eskubideez baliatzeko eta beren betebeharrak betetzeko behar duten informazioa jasotzea.
 - e) Dagokionean, kapital sozialari egindako ekarpenak eguneratu eta itzultzea, bai eta, horrela bada, haiengatiko interesak jasotzea ere.
 - f) Kooperatiba-itzulkina jasotzea, hala badagokio.
 - g) Lege eta estatutuen ondoriozko gainerakoak.
- Beren eskubideak gauzatzean, bazkideek kontuan izan beharko dute legeek eta estatutuek nahiz kooperatibako organoek balio osoz hartutako erabakiek diotena.

8. Zer dira lan-aurrerakinak?

Bazkide langileek kooperatibaren soberakinetik hilero jasotzen dituzten diru-sarrerak dira, kooperatiban duten partaidetzarekiko proportzionalak. Aurrerakina ez da izango lanbide arteko gutxieneko soldata baino txikiagoa.

9. Zer egin behar dute bazkideek kooperatiban baja emateko?

Bazkideek beren borondatez eman dezakete baja kooperatiban, edozein unetan, administratzaileei aurrez jakinarazita, estatutu sozialetan ezarritako epean. Gehienez, epe hori 3 hilabetekoa izango da.

Borondatezko bajak justifikatuak eta justifikatu gabeak izan daitezke.



Estatutuek ezarritakoaren arabera, baja justifikatutzat edo ez-justifikatutzat kalifikatzea kooperatibaren administrazio-organoaren eskumena izango da; gehienez ere 3 hilabeteko epean kalifikatu beharko du, jakinarazpena egiten denetik kontatzen hasita. Kalifikazioa interesdunari jakinaraziko zaio.

10. Zenbat pertsona kontrata daitezke kooperatiba batean gehienez besteren kontura?

Kooperatibek besteren konturako lan-kontratuak egin ahal izango dituzte, baina urteko lanorduen kopurua ez da izango bazkide langileek egindako lanorduen %30 baino handiagoa.

11. Iraupen mugatuko bazkiderik egon daiteke kooperatibetan?

Estatutuetan aurreikusten bada eta bazkidea onartzean erabakitzen bada, kooperatibek iraupen mugatuko lotura sozialak ezarri ahal izango dituzte. Lotura horien berezko eskubideak eta betebeharrak gainerako bazkideenen parekoak izango dira, eta estatutuetan arautuko dira.

Bazkide horien kopurua ez da izango bazkide mugagabeen bostena baino handiagoa, ez eta bazkide mugagabeek batzar nagusian dituzten botoen bostena baino handiagoa ere.

12. Zer erantzukizun dute bazkideek sozietatearen zorrei dagokienez?

Bazkideek ez dute erantzukizun pertsonalik izango sozietatearen zorrei dagokienez. Haien erantzukizuna kapital sozialari egindako ekarpenek mugatuko dute.

13. Zerk osatzen du kooperatiben kapital soziala?

Bazkideek kapital sozialari egiten dizkioten ondare-ekarpenek, nahitaezkoek edo borondatezkoek, osatuko dute kooperatibaren kapital soziala. Ekarpene horiek honelakoak izan daitezke:



- a) Baja ematean itzulketa-eskubidea duten ekarpenak.
- b) Estatutu sozialetan jasotakoaren arabera, batzarraren edo kontseilu errektorearen erabakiz, itzulketa baldintzarik gabe ukatzeko aukera duten ekarpenak.

14. Zer itzuli behar zaie bazkideei kooperatiban baja ematen dutenean?

Estatutuetan arautuko da kapital sozialari egindako ekarpenen itzulketa. Kenkariak ezarri ahal izango dira, baina nahitaezko ekarpenen gainean bakarrik, eta, gehienez, ehuneko hauek aplikatuko dira: ehuneko hogeita hamarreraino, bazkidea kanporatzen denean, eta ehuneko hogeiraino, bidezkoa ez den baja bat gertatzen denean.

Estatutuetan aurreikusi ahal izango da, itundutako gutxieneko iraunaldia bete ezean, ehuneko hamar puntu gehitzea, gehienez ere, bidezkoa ez den bajaren kasuan aplikatu beharreko kenkari-ehunekoari.

Edonola ere, arestian aipatutako kenkariei kalterik egin gabe, baja ematen duen bazkideari itzuli beharreko ekarpenari baja gertatu den ekitaldiko itxiera-balantzean jasotako galerak –direla ekitaldi horretakoak, direla aurreko beste ekitaldi batzuetakoak edo konpentsatu gabe daudenak– kenduko zaizkio. Deskontua, betiere, kapital sozialari egindako ekarpenetara mugatuko da.

15. Zer da Nahitaezko Erreserba Funtsa?

Nahitaezko Erreserba Funtsa kooperatiba finkatu, garatu eta bermatzeko funts bat da, eta ezin da bazkideen artean banatu, Legeak berariaz aurreikusitako egoeretan izan ezik.

Honako diru-kantitate hauek bideratu beharko dira Nahitaezko Erreserba Funtsera:

- ✓ Soberakin baliagarrien ehuneko bat. Batzar nagusiak ezarriko du ehuneko hori, baina % 20koa izango da gutxienez.
- ✓ Zenbait bazkideren baja gertatuz gero kapital sozialera egin beharreko ekarpenetatik ateratako kenkariak.
- ✓ Sarrera-kuotak.

**16. Egotz dakizkioke galerak Nahitaezko Erreserba Funtzari?**

Nahitaezko Erreserba Funtsera soberakin positiboa izan duten azken bost urteetan legearen arabera nahitaez egin beharreko funtsetara bideratutakoaren batez besteko ehuneko a egotziko zaio gehienez ere, edo, kooperatiba bost urte horiek baino berriagoa bada, sortze-unetik beretik bideratutakoaren batez besteko ehuneko a. Hala ere, Nahitaezko Erreserba Funtzak kooperatibaren kapital sozialaren % 50 gainditzen badu, ehuneko horretatik gorako zenbatekoa galerak konpentsatzeko ere erabili ahal izango da.

17. Zein dira funts horren interes publikoko helburuak, heziketarako eta kooperatiba-sustapenerako eta interes publikoa duten beste helburu batzuetarako kontribuzioari dagokionez?

Jarduera hauetakoren batera bideratuko da:

- Bazkide eta langileei prestakuntza ematea, bai kooperatibismoari buruz, bai lanpostuarekin lotuta ez dauden beste arlo batzuei buruz.
- Kooperatiben arteko harremanak sustatzea.
- Kultura, lanbidea eta laguntza sustatzea, eta kooperatibismoaren ezaugarriak zabaltzea.
- Euskararen erabilera sustatzea.
- Kooperatiba-enpresa berriak sustatzea, euskal kooperatiben mugimenduak sustatutako irabazi-asmorik gabeko erakunde bati diru-ekarpenak eginez.
- Bazkide eta langileei prestakuntza eta heziketa ematea, kooperatibetan emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko urratsak emateko politika eraginkor bat sustatze aldera.
- Kooperatibak ezin du erabili ekarpen hori, salbu eta arestian aipatu diren interes publikoko helburuetara zuzentzeko; ekarpen hori, horrenbestez, enbargaezina da eta balantzearen pasiboan azaldu behar da.
- Kooperatibak berak adierazitako interes publikoko helburuetara bideratu ez den zenbatekoa irabazi-asmorik gabeko erakundeei emango zaie, soberakinaren banaketa onetsi den ekitaldi ekonomikoaren hurrengo ekitaldian, erakunde



horiek erabil dezaten kontribuzio horretarako erabaki diren interes publikoko helburuak betetzeko.

18. Zein dira kooperatiben organo nagusiak?

Kooperatibetan Batzar Nagusia eta Administrazio-Organoa dira beharrezko organoak. Estatutuetan, Zaintza-Batzordearen, Kontseilu Sozialaren eta Errekurtso-Batzordearen sorrera eta funtzionamendua arautu ahal izango dira, Legean aurreikusitako terminoetan. Beste organo batzuk ere sortu ahal izango dira, baina horiek ez dituzte izango aipatutako organoen funtzio eta eskumen berak.

19. Zer Batzar Nagusi mota daude?

Batzar Nagusiak ohikoak eta ezohikoak izan daitezke. Hauek dira ohiko batzar nagusien funtsezko helburuak: sozietatearen kudeaketa aztertzea, urteko kontuak onartzea, bidezkoa bada, eta, hala dagokionean, soberakinen banaketaren eta galeren egozpenaren inguruko erabakiak hartzea. Gainerako batzar guztiak ezohikoak izango dira.

Dena den, bilera baliagarria izango da deialdia egin beharrik izan gabe, baldin eta bazkide guztiek, pertsonalki edo ordezkatuta, batzar nagusi unibertsala eratzea erabakitzen badute, eta den-denek gai-zerrenda eta bertaratu diren bazkideen zerrenda sinatzen badituzte. Ondoren, ez da beharrezkoa izango bazkide guztiek bileran jarraitzea.

20. Zer eskumen ditu batzar nagusiak?

1. Kooperatibaren Batzar Nagusia bazkideen bilera da, bere eskumenerako gaiak buruz eztabaidatzeko eta erabakiak hartzeko eratuak.
2. Bazkide guztiek bete behar dituzte batzar nagusiaren erabakiak.
3. Batzar Nagusiaren eskumen eskusiboa da honako erabaki hauek hartzea:
 - a) Isilpeko boto bidez honako hauek izendatzea eta ezeztatzea: administratzaileak, Zaintza-Batzordeko kideak, kitatzaileak, eta, hala badagokio, Errekurtso-Batzordeko eta Kontseilu Sozialeko kideak.



Halaber, erantzukizun-ekintza egikaritu ahal izango du horien guztien aurka.

- b) Kontu-auditoreak izendatzea eta ezeztatzea, horretarako bidezko arrazoia badago soilik.
- c) Sozietatearen kudeaketa aztertzea, urteko kontuak onartzea eta soberakinen banaketa edo galeren egozpena onartzea.
- d) Nahitaez egin beharreko ekarpen berriak, ekarpen horiek kapitalean sortuko duten interesa eta sarrerako edo aldian aldiko kuotak zehaztea.
- e) Obligazioak, partaidetza-tituluak eta partaidetza bereziak edo 68. artikuluan aurreikusitako beste finantzaketa-mota batzuk jaulkitzea, 62.2 artikuluan ezarritakoari kalterik egin gabe.
- f) Estatutu sozialak aldatzea.
- g) Bigarren mailako edo maila handiagoko kooperatibak, kooperatibataldeak eta antzeko erakundeak eratzea, kide egitea eta bereiztea.
- h) Sozietatearen bat-egitea, zatiketa, eraldaketa eta desegitea.
- i) Estatutuen arabera, kooperatibaren egitura ekonomikoa, antolamendua edo egitura funtzionala nabarmen aldatzea dakarten erabaki guztiak.
- j) Kooperatibaren barne-araudia onartzea edo aldatzea.
- k) Legeak zehazten dituen gainerako erabakiak.

21.Noiz egin behar da ohiko Batzar Nagusia?

Ohiko batzar nagusia ekitaldia itxi eta hurrengo 6 hilabeteetan egin beharko da.

22.Zein da Batzar Nagusia deitzeko epea? Eta nola egiten da zenbaketa?

Deialdia egiteko epea kooperatiba bakoitzak bere estatutuetan ezarritakoa izango da, eta ez da 60 egunetik gorakoa izango, ezta 10 egunetik beherakoa ere.

Zenbaketa egiteko, ez dira igandeak eta jaiegunak kontuan hartuko. Orobat, ez dira zenbatuko batzarra egin den eguna eta deialdiaren eguna.

**23. Administratzaile bakarra izan dezakete kooperatibek?**

Hamar bazkide edo gutxiago dituzten kooperatibek administratzaile bakarra izendatu ahal izango dute.

24. Euskadiko Kooperatiben Erregistroan ezinbestean erregistratu behar dira administratzaile berriak, berriz ere pertsona berdinak aukeratu badira?

Administratzaileen agintaldia kasu bakoitzean estatutuetan zehaztutakoa izango da; agintaldia ez da izango 5 urtetik gorakoa, ezta 2 urtetik beherakoa ere.

Agintaldia amaitu ondoren, administratzaile berriak izendatu behar dira; aurrekoak ere berritu daitezke, estatutuek mugarik jartzen ez badute.

Kasu guztietan, beste pertsona batzuk aukeratzeko badira nahiz beren agintaldia amaitu dutenak berritu badira, inskripzioa berritu egin beharko da Euskadiko Kooperatiben Erregistroan.

25. Nor joan daitezke Kontseilu Errektorearen bileretara? Beste norbait joan daiteke bazkidearen ordean, arrazoi justifikatuak daudenean?

Kooperatibetan, beste sozietate-mota batzuetan ez bezala, pertsonak berak joan behar du Kontseilu Errektorera. Beraz, ezin izango da beste inor bertaratu, horretarako ahalordea izan arren.

26. Egin daitezke batzar telematikoak?

Bai, sozietatearen estatutuetan hala ezarrita badago.

Batzar Nagusiak oso-osorik edo partzialki egin ahal izango dira, telematikoki edo teknologiak ahalbidetzen duen edozein sistema erabiliz.

Administrazio-organoak ezarriko du aurrez aurre ez bertaratzeko sistema, eta honako hauek bermatuko ditu:

- ✓ Deialdian sartzekoak diren pertsona guztiek izatea bilerara bertaratzeko aukera.
- ✓ Bazkideen nortasuna egiaztatzea.



- ✓ Boto-eskubidea egikaritzea eta, hala aurreikusita dagoenean, botoaren konfidentzialtasuna.
- ✓ Komunikazioan irudia eta soinua bi noranzkoko eta aldi berekoa izatea, eta ikusizko, entzunezko eta hitzezko interakzioa izatea.

Hala adierazten duten bazkideek batzarrean aurrez aurre parte hartu ahal izatea. Batzar Nagusiko idazkariak batzarraren aktan berariaz idatzita utziko du bazkide bakoitzak batzarrean parte hartzeko zer sistema erabili duen, baita batzordekide bakoitzaren nortasuna eta bere borondatea adierazteko erabili duen bitartekoa ere, erabakiak balio osoz hartzeko eskatzen diren gainerako baldintza guztiez gain.

27. Zein dira kooperatiba-sozietate txiki bateko organoak?

Kooperatibaren Batzar Nagusia eta Administrazio- eta Ordezkaritza-Organoa, kide bakarrekoa (administratzaile bakarra), pluripertsonala (administratzaile solidarioak edo mankomunatuak) edo kide anitzekoa (Kontseilu Errektorea).

28. Besteren konturako zenbat pertsona eta aldi baterako zenbat bazkide egon daitezke kooperatiba txiki batean?

Kooperatiba txikiek, eratu eta gehienez ere bost urteko epean, besteren konturako langileak –edozein motakoak direla ere– eta iraupen mugatuko bazkide langileak kontratatu ahal izango dituzte. Langile horien kopurua, guztira, ez da izango iraupen mugagabeko, lanaldi osoko edo lanaldi partzialeko bazkide langileena baino handiagoa.

Nolanahi ere, besteren konturako bost langile kontratatu ahal izango dira gehienez. Kooperatiba eratzen den egunetik gehienez ere bost urteko epean, iraupen mugagabeko bost bazkide langile edo gutxiago –lanaldi osokoak nahiz lanaldi partzialekoak izan– dituzten kooperatiba-sozietate txikiek besteren konturako bost langile eta iraupen mugatuko bost bazkide langile –lanaldi osokoak nahiz lanaldi partzialekoak– kontratatu ahal izango dituzte gehienez.

Aurreko ataletan aipatzen den bost urteko epe hori amaitzean, sozietate kooperatibo txikiek besteren konturako langileak eta iraupen mugatuko bazkide langileak kontratatzeko mugak Legean ezarritakoak izango dira.

**29. Kooperatibek zer dokumentazio sozial izan behar dute eguneratuta?**

Kooperatibek ordenan eta egunean eraman beharko dituzte honako liburu hauek:

- a) Bazkideen erregistro-liburua.
- b) Kapital sozialerako ekarpenen erregistroa.
- c) Akta-liburuak. Batzar nagusiarena, kontseilu errektorearena, eta, hala badagokio, zaintza-batzordearena, errekurtsio-batzordearena eta prestatzeko batzarrena.
- d) Inbentario eta balantzeen liburua eta eguneko liburua.
- e) Lege-xedapenek eskatzen dituzten beste guztiak.

Liburu horiek, euskarri elektronikoa edo paperean, Euskadiko Kooperatiben Erregistroak legeztatuko ditu, sei hilabeteko epean, ekitaldia ixten denetik aurrera kontatuta.

1.c idatz-zatian adierazten diren liburuak legeztatzen ez diren bitartean, akten kopia ziurtatua bidali beharko zaio Euskadiko Kooperatiben Erregistroari, bi hilabeteko epean, akta horiek onartu zirenetik kontatzen hasita.

30. Zer hartzen dute barne urteko kontuek?

Urteko kontuek honako hauek hartzen dituzte barne: balantzea, irabazi-galeren kontua eta memoria; eta, hala dagokionean, ondare garbian izandako aldaketen egoera, diru-fluxuen egoera eta kudeaketa-txostena.

Administratzaile guztiek sinatu ondoren aurkeztuko dira, urteko kontuak onartzea erabaki zen batzar nagusiaren ziurtagiri batekin batera, notarioaren aurrean legitimatutako sinadurekin.

31. Non aurkeztu behar dira kontuak?

Urteko kontuak kooperatibaren egoitza soziala dagoen lurralde historikoko Euskadiko Kooperatiben Erregistroan (Eusko Jaurlaritzaren lurralde-ordezkaritzan) aurkeztu behar dira, ohiko batzar nagusiak onartu eta hilabeteko epean.



32. Kooperatiben estatutu sozialak Euskadiko Kooperatiben Lege berrira egokitu behar dira? Noiz amaitzen da epea?

Bai, nahitaez egokitu behar dira, ekainaren 24ko 4/1993 Legea indargabetu egin baitzen.

Urriaren 7ko 5/2021 Legeak, Euskadiko Kooperatiben Legea aldatzekoak, 2023ko abenduaren 31ra arte luzatzen du estatutu sozialak egokitzeko epea.